



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 6a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan gutzira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00005. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00050. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arretaren ikuspegia, kirol arloko profesionaleri zuzentzen dizkien ekin-tzetan. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duen ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00076. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza-zerbitzua gartzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00077. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietara negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (9. or.).

—11-24/MOC-00080. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (9. or.).

—11-24/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (10. or.).

- 11-24/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (10. or.).
- 11-24/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (10. or.).
- 11-23/MOC-00031. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (11. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00006. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua emateko Foru Legea onetsi du.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan guztira 338.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

ZIOEN AZALPENA

3/2024 Foru Legeak, apirilaren 25ekoak, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoak, 3. artikuluan jasotzen du Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legeko zenbait aurrekontu-partidaren izenen aldaketa.

Halere, aurrekontu-partiden izen direnak aldatzeaz gain, 3. artikuluko horrek partiden kodeak ere aldatzen ditu, eta horrenbestez, de facto sortu egiten ditu partida berriak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak txostenak igorri dituzte, 2024ko aurrekontuan kasuko gastua

exekutatzeko aldera egoki diren aurrekontu-partidak hornituz aparteko kreditua onetsi beharri buruzkoak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru-lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Orobat, haren bigarren paragrafoan xedatzen denez, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal da aparteko kreditua, are Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru-lege horren xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenekin ere.

1. artikulua. 3/2024 Foru Legeko 3. artikulua indargabetzea.

Indargabetu egiten da Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2024ko aurrekontuan 539.000 euroko aparteko kreditua emateko apirilaren 25eko 3/2024 Foru Legearen 3. artikulua.

2. artikulua. Aparteko kreditua ematea.

Guztizko zenbatekoa 338.000 eurokoa duen aparteko kreditua ematen da 2024rako aurrekontuan, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko.

Kreditu hori honako aurrekontu-partida hauei aplikatuko zaie:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 2616T0 Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea tabernarako eta dendarako	80.000
210001 21300 7609 2616T1 Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Kirol Etorbideko luminariak aldatzea	60.000
210001 21300 7609 2616T2 Hitzarmena Murchanteko Udalarekin, San Isidro eta Virgen de Mis Manos kaleetako zoladura konpontzekoa	30.000
210001 21300 7609 2616T3 Andosillako Udalarentzako transferentzia: hiri orubea hobetzea eta Felipe de Arín kalean pergola bat eraikitzea	30.000
A21001 A2400 6054 332202 Tuterako liburutegi publikorako ekipamendua	3.000
A50000 A5000 7609 3361E8 Erriberriko Udalarentzako transferentzia. Frontoia eraberritzea	60.000
A50003 A5200 4819 336113 Eguesibarreko Saskibaloiko Taldearentzako dirulaguntza: gizonetzkoen saskibaloirako proiektu egituratua	50.000
A50003 A5200 4819 336114 Trikideak kirol klubarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloi eta Aquabike txapelketaren antolakuntza	25.000

3. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

338.000 euroko aparteko kreditu hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatuko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 2616L3 (E) Armañantzasko Udalarentzako transferentzia: eraikinak egokitzea funtsezko zerbitzuetarako	80.000
210001 21300 7609 2616M5 (E) Barañaingo Udalarentzako transferentzia. Departamentuen Etorbideko luminariak aldatzea	60.000
210001 21300 7609 2616P4 (E) Hitzarmena Murchanteko Udalarekin, udalerrira oinez sartu ahal izateko obrak egiteko	30.000
210001 21300 7609 2616O5 (E) Andosillako Udalarentzako transferentzia: hiri hobekuntza eta interrelaziorako espazioak sortzea. Naturaren txokoa	30.000
A21001 A2400 7609 332203 (E) Tuterako liburutegiarentzako dirulaguntza, erabilera anitzeko aretoa egokitzeko	3.000
210001 21300 7609 2616M4 (E) Hitzarmena Erriberriko Udalarekin. Frontoia eraberritzea	60.000
A50003 A5200 4819 336111 Nafarroako Saskibaloiko Federazioarentzako dirulaguntza, gizonetzkoen saskibaloiko talde egituratua proiektua abian jartzeko	50.000
A50003 A5200 4819 336112 (E) Nafarroako Triatloi Federazioarentzako dirulaguntza: 2024ko Espainiako Triatloi eta Aquabike txapelketaren antolakuntza	25.000

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00005. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea

HITZAURREA

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak eta haren plantillak eskumen eta ezaugarri berezi eta berekiak daukate; eta, halatan, beharrezko dute zereginen eta lanpostuen berezitasun horretan oinarritzen diren kudeaketa-eredua eta araubidea.

Erregelamendu bereki bat prestatzearekin batera –langintza hori abian da jadanik–, aipatu zerbitzuko lanpostuei buruzko azterlan bat egin beharra dago, hain zuzen ere azken urteotan Administrazioak zenbait departamentu eta zerbitzutan egin duen bezalaxe, xedetzat harturik lanpostu horiek ahalik eta modu efizienteenean tankekatuta uztea lan-baldintzei, erantzukizunei eta eginkizunei dagokienez.

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren eskumen eta ezaugarri bereziak egokiro baloratuko badira, lanpostu-baloraziorako azterlan bat egin behar da –erregelamenduaren negoziazioaren barrenean, eta erregelamenduarekin batera–, lan-

postu bakoitzaren analisisian sarturik lanpostuko prestazioak eta lan-baldintzak.

Horregatik, xedapen gehigarri berri bat txertatzea proposatzen da, zeinak ezarriko baitu lanpostu-baloraziorako azterlan bat egin beharra, aldeei ahalbidetuko diena, bai foru-administrazioari bai ordezkariak sindikalari, lanabes zehatz bat eskueran edukitzea, Mahai Sektorialean irekitako negoziazio-esparruaren barrenean.

Artikulu bakarra. Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzea.

Xedapen gehigarri berri bat eransten da, seigarrena. Testu hau izanen du:

“Seigarren xedapen gehigarria. Lanpostu-baloraziorako azterlana.

1. Administrazioaren eta ordezkariak sindikalarren artean ezarritako negoziazio-esparruaren barrenean, eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren funtzionamendua eta barne-antolamendua arautuko dituen erregelamenduaren onespenezkoaren aldi berean, Barne Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu horretako lanpostuen baloraziorako azterlan bat egingen du bederatzi hilabeteko epean. Azterlan horrek lanpostu desberdinetako prestazio eta lan-baldintzen analisi bat jasoko du, aintzat harturik Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren eskumen eta ezaugarri bereziak. Azterlanari 2024aren bigarren seihilekoan ekin beharko zaio.

2. Azterlanaren prestaketan Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko eta Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuko Langileen Batzordearen ordezkariak batek parte hartuko du, lanpostu bakoitzaren balorazio-sistema, irizpideak eta faktoreak zehazteko eta emaitza baliozkotzeko.

3. Azterlana egin ondoren, aipatu Langileen Batzordearekin negoziatuko da lan- edo ordainsari-baldintzen balizko hobekuntzen ezarpena, eta, hala badagokio, kasuko arau-moldaketak egin beharko dira Azterlana eta haren emaitzak ezartzeko."

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-24/MOC-00050. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arreta-
ren ikuspegia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bere kirol plangintzan sar dezan osasun mentalerako arretaren ikuspegia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premia-tzen du:

1. Bere kirol plangintzan sar dezan, ekintza zehatzekin, osasun mentalerako arretaren ikuspe-gia, kirol arloko profesionali zuzentzen dizkien ekintzetan.

2. Kirol komunitateari zuzendutako sen-tsibilizazio- eta heziketa-kanpainak bultzatuz, kirolak eta jarduera fisikoak osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren sustapenean duten garrantziari buruz.

3. Jarduera fisikoaren eta kirolaren Plan estra-tegikoan osasun mentalaren arretari buruzko atal bat sar dezan.

4. Gazteenei zuzendutako kirol programa-zioan, esate baterako kirol jokoetan, sar ditzan osasun mentalaren garrantzia eta arretarako baliabideak.

5. Jarrai dezan modu deszentralizatuan gara-tzen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak sustatutako kirol errezetaren proiektuak Osasun Departamentuarekin elkarlanean, osasun mentalaren nahasmenduak prebenitzeko zerbitzu gisa eta osasunaren zaintzaren arloan kirolak eta jarduera fisikoak duten balioa nabarmentzeko”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duen ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duen ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu Nafarroako Parlamentuak. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duen ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten du, gorroto horren oinarrian zernahi ere dagoen: jaioterra, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinetsmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo -identitatea nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo soziala.

2. Nafarroako Parlamentuak gogora ekarri nahi du ezen ordezkari publikoek funtsezko egitekoa eta ardura daukatela bizikidetasuna eta errespetua sustatzeko eta gorrotoa eta intolerantzia piztearen aurka borrokatzeko; hortaz, ez dute hori sustatzen duen inolako adierazpen publikorik egin behar.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du konprometituta dagoela bizikidetasun baketsuaren nahiz aniztasunarekiko errespetuaren sustapenarekin eta giza eskubideen defentsarekin; bereziki, ideologia- erlijio- eta kultu-askatasunarekin, zeina Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua babesten baitu”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00076. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du hitzarmen bidez sendotu eta finkatu dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen

etxez etxeko laguntza zerbitzua eman dezaten, halako moldean non handitu egin ahalko baita zerbitzuaren irismena, hala artatutako pertsona kopuruari nola egindako ordu kopuruari, artatzeko egunei eta ordutegiei edo profilei dagokienez”. Legegintzaldirako helburua izanen da estatuan ematen den etxez etxeko zerbitzuaren batez bestekora hurbiltzea gutxienez (% 18), mendekotasunari arreta emateko sistemak emandako zerbitzuetan”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00077. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du negoziazio globalerako egutegi bat ezar dezan, landu beharreko gaiak eta epe zehatzak jasoko dituen, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna berritzeko xedez”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00080. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan. Hona testua:

Legearen aldaketa izan dadin eraberritze demokratikoa bultzatze aldera Espainiako Gobernuak lehendakariak proposatu dituen neurrietako bat, lege hori XXI. mendeko estatu demokratiko baten eskubide eta printzipio demokratikoetara egokitzeko”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 4an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan, familia eta kirola kontziliatu ahal izateko ekintzak egiteaz gain”.

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi du Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko.

Mozioa 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan.

Mozioa 2024ko maiatzaren 28ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00031. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan

ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Osasun Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ez du bete Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko

irailaren 28an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

